

ren pozez. Asarre dagitsot orduan buruari eragiñik, eta gaizto-gaiztoa dala diñotsat... Eta arek barre ostera be, ta jolasketa alai baten diardugula iruditzen yako.

Mundu guztiak daki jakin aita ez dagaala emen. Baiña nik, olgetan, ots ba' dagit : "Aita !", ingurumari begiratzen dau zoro antzean, eta aita alboan daukala siñisten dau. Nik erropatan datorren garbitzaillearen astotxoai ikasgaiak artzen diardudalakoa egin ta zure neskatoari neu nazala maixu diñotsodanean, geiagoko barik garrasika asten da, Dada ! Dada ! niri dei egiñik.

Ondoren, zure neskatoak illargia arrapau nai. Ganes'i Ganus deitzen dautso, eta gauza oso bixia dala iruditzen yako. Ergel uts gaixoa! Ama, zure neskatoa alotza da.

27

GIZONTXOA

Txikiña naz ni oraindik, ume nozu-ta. Baiña neure aitaren adiñera eltzean, andi izango naz. Nire maixuak, orduan, etorri ta esango daust: "Berandu da, ume ! Zoaz arbel eta liburu-billa !" Eta nik erantzun: "Ez al dakusu aita lez andi nazala ? Nik ez dot geiago ikasgai bearrik !" Eta nire irakasleak, arri ta zur, jardetsiko: "Bai, egia diñozu ! Nai ba'dozu, itxi zeinkez liburuok, onez-kero gizon egiña zaitugu-ta".

Jantzi ta azokara joango naz egurastera; azoka ingurua, barriz, jentez gaiñezka aurkituko dot. Osaba etorriko yat ariñeketan, eta esan: "Galduko zara, ene seme. Itxi egidazu, otoi; besoetan eroango zaitut !" Eta nik erantzungo dautsat: "Baiña, osaba, ez al dakusu aita baizen andi nazala ? Bakarrik etorri bear dot azokara". Eta osabak: "Bai, egia da. Zoaz noranai araxe, onezkerogizon egiña zaitugu-ta".

Amak, ezkotegitik biurtzean, nik neure giltzez kutxa edegiten dakidan ezkerok, ugazabandrari dirua emoten aurkituko nau. Eta esango daust: "Zer egiten dozu, zoro orrek ?" Nik erantzungo : "Baiña, ama, zuk ez al zenkian? Ni, aita lez, andi nozu dagoneko, eta neure ugazabandreaki ordaindu bear dautsat". Eta nire amak bere kolkorako : "Emon dagiola dirua nai daunari, onezkerogizon egiña baita".

Urrilleko opor-aldietarako, nire aita etxera itzuliko da, ta ni oindiñokarren ume nazala uste izanik, oski barri ta zikiriozko jantzitxoak ekarriko daustaz. Eta nik esango dautsat: "Dada'ri emiozuz, aita, ni zu baizen andia nozu-ta". Eta aitak, bere baitan gogartuz : "Egia da. Errazoia dau. Berak erosi daike, onezkerok, berari ederren yakon jantzia, gizon egiña da-ta".

AMABIAK

Ama, nik ez dot geiago ikasi nai ! Goiz guztian liburu onegaz !